



Arratsaldean zehar, aske geratu dira Intxaurrondon Guardia Zibilak atxilotu dituen 4 euskal herritarrek. EFE agentziak adierazi duenaren arabera; atxiloketak ez daude prozesu judizial baten barruan, Guardia Zibilak ireki dituen diligentzia baten ondorioak direla baizik. Diligentzia hauek audientzia nazionalera bidaliko dituzte. Atxiloketa salatzeko arratsaldean zehar, mobilizazio ezberdinak egon dira Euskal Herriko txoko ezberdinetan, horietako bat Santurtzi izan da, atxilotutakoetako bat Oihane Garmendia santurtziarra izan baita.